egin miércoles, 30 de julio de 1986

## colaboraciones

*Euskara normaltzeko legea*

# Oraindik abaia ez den elbarria

Joan zen ekainaren 26an Auzitegi Konstituzionalak «Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko» Legeari buruz emandako epaiaren inguruan hainbat eritzi eman dituzte eta eztabaidarik ere antolatu dute. Agintari autonomikoen eta alderdi politikoren ordezkari zenbaiten aldetiko aipuak eta eritziak oso baikorrak izan dira. Bestelakorik gertatu da, ordea, egun berean Auzitegi berberak katalana eta galiziera normaltzeko legeen gain emandako epaiei buruz bertako agintariek, zenbait alderdi politikok eta organismo herritarren ordezkarik beren eritziak eta jarrerak agertzean. *Hasteko, beraz, nabarmendu beharra dago, hiru epaien inguruan gertatu diren erreakzio ezberdinak. Susmagarria ez ote?*

Aipuak ugari, eritziak baikorrak eta deklarazioak goraipenezkoak: baina argibiderik oso gutxi eman dute hiru urtetan errekurtsoaren pean egon den legeari eta azken epaiari buruz. Badirudi, hala ere, herriarentzat egin zutela lege hori ala ez? Ba, orduan, argibideak behar ditu jendeak, lege horretaz egunero nola baliatu jakiteko, edota lege horren balioaz bere eritzia emateko.

**Legearen edukina eta abiaburuak**

1982ko azaroaren 24ean lege bat eman zuen Eusko Legebiltzarrak, beraz. Horren izenburua: «Oinarrizko legea, euskeraren erabilpena arauzkotzezkoa»; euskararen normalkuntzarako legea, esan ohi da. Hitzaurrean legearen zergatikoak azaldu eta «aintzin-idazpuruan» oinarrizko printzipio batzu ezarri ondoren, sei «atalburutan» dago banaturik legea, eta honako gaiok daude legeztatuta: Hizkuntzari buruz herritarrek dituzten eskubideak eta agintariek dituzten eginbideak; Euskararen erabilpena Administrazio publikoan; Euskararen erabilpena irakaskuntzan; Euskararen erabilpena komunikabide sozialetan; Euskararen erabilpena gizartean bultzatzeko Administrazio publikoaren eginkizunak; Euskara idatziaren batasuna. Erabaki «gehiagorrietan» eta «aldibaterakoetan» beste zenbait puntu dago ikuturik legean.

Eusko Legebiltzarrean zeuden alderdi politiko guztiak —AP ezik— *etorri ziren bat lege hori aproba*tzean, duela hiru urte t'erdi pasatxo. PSOE-PSEk ere bai, baiezkoa eman zio legeari.

Orain dela urte t'erdi EKBk argitara eman zuen *Euskararen plangintzarako oinarriak* izeneko dossierrean, zenbait eritzi jaulki zuen lege horri buruz. Hona horietako bi: «Lege horren helburua elebitasuna da. Legearen filosofia, berriz, euskal herritar bakoitzak bere hizkuntza aukeratzeko duen askatasun erabatekoan oinarritzen da» (45 or.). «Hizkuntzaren lurraldetasun-printzipioa gaztelaniarentzat baieztatzen da, estatu osorako; euskararentzat estatutu pertsonala baieztatzen da, hiru herrialdetarako bakarrik; Nafarroan eskualde batzuetarako bakarrik» (47.or.).

Abiaburu horien eta euskararen normalkuntzaren arteko kontraesana agertzeko, berriz, bi sozilinguisten eritziak jaso genituen orduan (47. or.): «Euskararen patua aldatzeko egin daitezen ahalegin guztiek ezingo dute fruiturik eman, euskarak bigarren mailako hizkuntza izaten jarraitzen duen bitartean eta lurraldetasun-printzipioaren bidez babestua ez den bitartean» (I. Müller). «Hizkuntza batek lurraldezko estatutua duen bitartean, eta besteak estatutu pertsonala, ordezkapen-prozesua segurua eta geraezina da». (Ll. Ninyoles).

**Errekurtsoaren puntu nagusiak**

1983ko martxoaren 16an Madrilgo Gobernuak Auzitegi Konstituzionalera jo zuen gora, Legearen hainbat artikuluren aurka errekurtsoa ipiniz. Zehazki artikulu hauen aurka: 5, 6, 8.3, 9, 12, 13 eta 14. *Oso puntu garrantzizkoak zeuden* legeztaturik artikulu horietan: Administrazio publikoarekiko harremanak euskaraz nahiz erdaraz erabiltzeko eskubidea; Justiziaren administrazioan herritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea eta horretan erabilitako dokumentu euskarazkoen balioa; Komunitate Autonomoan Administrazio Publikoak erabiliko dituen inprimaki ofizialak bi hizkuntzetan egon beharra; halako funtzionarien aldetik euskara jakin beharra, eta oposizioetan euskararen ezagutza baloiztatzea.

Errekurtsoan funtsean Estatuaren eta Komunitate Autonomoaren arteko eskuduntza edo konpetentzia jartzen da auzitan; lau artikulutan partikulatxo baten gorabehera da, hau da, «Poderes Públicos *de* la Comunidad Autónoma» idatzi beharrean «Poderes Públicos *en* la Comunidad Autónoma» omen dagoela idatzirik legean, eta, beraz, Administrazio Publiko estatalaren konpetentzietan sartzen omen dela legea. Arazo beretsua —eskuduntza edo konpetentziarena— jartzen da auzitan, justiziaren administrazioan (9.art.) euskararena legeztatzearen eta «Itzultzaile zineginari» buruz (art. 12,1) hitzegitearen aurkako errekurtsoan.

Errekurtsoko funtzionariei buruzko puntu garrantzizkoa (14. art.) *euskara jakitera herritarrak* behartu ezinaren alorrean sartzen da. Jakin da, azken urteotan beste hamaika errekurtso eragin dituela arazo horrek, euskara eskatzea «diskriminaziotzat» jotzean, hainbat istilu sortzeraino.

Errekurtsoan bazegoen, azkenik, beste puntu txiki baina oso garrantzi handikoa: 8.3 artikulukoa. Horren arabera, Udal-Administrazioan erabil zitekeen euskara soilik «herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dadinean». Hitz errazez, bidea ematen zuen legeak, herritar guztiek euskara dakiteneko udalerrietan Administrazio Publikoak euskara bakarrik erabiltzeko. Horrela nolabait zirrikitutxo bat irekia gelditu zen legean, lurralde txiki batetan behintzat euskarari bere esparru esklusiboa emateko. *Baina* zirrikitu hori itxi nahi zuen errekurtsoak.

Aipaturiko dossierrean hitz hauetara biltzen zen errekurtsoaren muina: «Euskara gaztelaniaren maila berean legalki jarri nahi izatearen (hau da, euskara obligazio mailan jartzearen) kontra edota administrazio publikoan euskara bakarrik erabiltzeko eskubidea edukitzearen kontra doa funtsean helegitea» (46. or).

**Hiru urte ditu legeak**

Auzitegi Konstituzionalak eman duen epaiak lehen alde on bat eduki du: euskal herritar hainbatek oraintxe jakin duela —edo gogoratu duela— euskararen normalkuntzarako legea bazela. Eta harriturik jakin dute seguruenik, hiru urtetik gora dagoela indarrean lege hori. Izan ere, errekurtsopean egon arren, indarrean egon da orain arte ere legea.

Seinale txarra da, hainbat herritarrek horren berririk ez edukitzea. Legea betetzeko eta bete erazteko bide eta ahalegin handirik ez dela egin; horixe adierazten du, hasteko behintzat. Horren erantzukizun nagusia Administrazio Publikoak du, jakina. Errekurtsoa hartu ote da aitzakitzat, legea ez betetzeko?

Agian legean bertan aurkitu dute jokabide politiko txepela zurikatzeko bidea, dossierrean abisatuta dagoenez: «*Bestalde, legearen* izaera eta hizkera osoa deklaratiboa da —eta ez normatiboa—: hau da, herritarrek Administrazio Publikoaren aldetik daukaten «prestazio-eskubidea'ren mailan planteatua dago orokorki lege osoa (...) Ez zaizkie benetako obligazioak ezartzen botere publikoei».

Baina, ez: legeak Administrazio Publikoari ezartzen dizkion obligazio juridikoez gain, lege osoak behartzen du hura obligazio politikoaz. Bestela adarra jotzen ari *zaizkigu herritarroi.*

Kontuak eskatzeko ordua da, legeak hiru urte ondo beteak dituen honetan.

EKB
Idazkaritza teknikoa

## colaboraciones

# Carta cerrada a B.

No, no, no, que no: Los métodos que ustedes emplean, lo digo de todo corazón y sinceramente, créanme, ustedes me conocen y saben de mi honradez proverbial en todo aquello que afecte y lesione los derechos humanos y la denuncia indesmayable de leyes excepcionales que propician las abominables sevicias (sevicias son malos tratos ignorantes, oh), sus métodos, les digo, son válidos, vamos a convenir, en otros países, pero no en éste, y menos en Europa, en Occidente, ¿no es cierto? En nuestro mundo, el mundo libre, ya que puede haber otros mundos pero están sin duda en éste, cuna de la civilización y la democracia, es impensable, qué digo, imposible que ustedes pretendan conseguir nada con esos reprobables métodos que usan tan «tercermundistas» como si esto fuera Beirut con cegríes y abencerrajes, pero se equivocan de medio a medio: !esto no es Beirut¡ Ni Hawai-Bombay que es un paraíso.

(Sigue la cosa). ¡Oh, válgame el cielo, por Júpiter y las barbas de Senaquerib! ustedes son puro anacronismo, un disparate histórico, no ven —oh, *humanum torpis*— que la situación política ha cambiado notablemente, yo diría que sobresaliente, no reparan que el general Franco ya murió. Estando «él», se entendía su lucha y yo mismo la apoyé ¿o es que también me van a discutir esto, villanos, mi mejor aval de prestigio para salir en los papeles y en los media? pero ahora, en estos momentos, en estas circunstancias, en esta tesitura, con otra perspectiva, en estas condiciones, con favorable coyuntura, en tiempos de convivencia y tolerancia, pues sus métodos no, aquí no, en otros tiempos quizá sí, que ya sabemos cómo sufren los pobres negros en Africa (y entonces todos los blancos se pintaron de negro), pero, en Europa, oh vamos... En Europa, como he tenido ocasión de comprobar dialogando con mis colegas europeos en el Parlamento europeo, la sola fuerza de la palabra es más que suficiente para defender cualquier causa, yo es eso lo que hago: emplear la fuerza de la palabra, eso sí, modestamente, con más o menos gracia, etc., pero pongo mi granito de arena que va muy acorde con mi sencillez de hábito (quiero decir habitual), pero, por todos los santos, ustedes echan por tierra toda mi labor y denonados esfuerzos, cuán ingrata es la vida de un parlamentario político, pero lo asumo con resignación y en la esperanza de ser *algún día reconocido aunque* no pretenda la fama ni la gloria. Y eso es injusto: ustedes no se hacen ni zorra idea por lo que uno tiene que pasar y lo que tiene que tragar, claro, en eso ustedes no se fijan, ahora mismo estoy en un grupo mixto que parece un pisto en el me «asfixio», pero eso, lejos de desanimarme, me encorajina y estimula para batirme a brazo partido, cruzándome la cara si menester es (verbalmente por supuesto, que uno es muy civilizado), sin dar el brazo (el que me queda, que el otro lo tengo «partido») a torcer; por los intereses de Euskadi, mi amado pueblo, que todos mis desvelos son por él, por el que daría, por el que daría, por el que...

Bueno, ustedes me conocen y saben de mi paciencia monacal, virtud creo yo y no defecto, así que no me cansaré de repetirles, tirlesrepe, lestirperre, perretirles, por activa o por pasiva, que sus métodos y modales son a-na-cró-ni-cos. Esas cosas pasan por ahí, pero aquí no tienen sentido con una democracia que da cabida a cualquier clase de reivindicación *política, incluida la independencia* aunque no la dé curso. Esto no es Beirut ni Londonderry (pero puede que sea Togo., Gabón, Ecuador, Panamá...), así que no nos amarguen con sus estampidos y estrépitos mermando la Fuerza de la Ser, digo de la Palabra, que ya se sabe que en el principio fue el Verbo y no la Acción como decía Goethe. Esas cosas pasan por ahí, no aquí. No, no, que no...

Jon I. ODRIOZOLA

## cartas

### *Puntualizaciones*

Le escribo en relación con la columna «Con Alfonso Sastre, otra vez» publicada en EGIN del 18 de *julio. Se alude en ella a una carta* mía a Alfonso Sastre, aparecida a su vez en «El País». No escribí esa carta «muy enfadado» con Sastre.

Por el contrario, creo que el tono de la carta era abiertamente cordial y que lo que en ella pudiera haber de «crítico» no era, en rigor, sino «autocrítico». En cualquier caso, nunca se me ha pasado por la cabeza «reprochar a Sastre su constante denuncia de la opresión», sino lo que me parecía un trato in*justo de la figura de José Luis* Aranguren. Mi carta era una carta «a favor», o en defensa, de Aranguren y no una carta «en contra» de Sastre ni de lo que éste representa, y así confío que la haya entendido todo lector que no se adhiera al dicho de que «quien no está conmigo, está contra mí». Lo que digo de Alfonso Sastre, finalmente, es extensible a su periódico y al «importante sector del pueblo vasco» que lo respalda. Me he manifestado alguna vez, y lo seguiría haciendo hoy, contra cualquier intento de silenciar a EGIN, de donde no se sigue que uno tenga que compartir al ciento por ciento sus puntos de vista. Comprendo que los tiempos no están hoy para afirmaciones liberales como la de «No comparto su opinión, pero daría mi vida por que pudieran seguirla manteniendo», mas, dado que los verdaderos liberales saben también ser obstinados en sus convicciones, suscribo sin reservas la anterior a la espera de que, como deseo de corazón, vengan tiempos mejores.

Javier MUGUERZA

### **Nota de redacción**

El poco espacio de que disponemos *para esta sección de «Cartas»* hace que no podamos publicar más que una mínima parte de las que llegan a esta Redacción. Así pues, solicitamos a nuestros lectores que los textos destinados a esta sección no excedan de 30 líneas mecanografiadas.

Es imprescindible también que esté firmados, y que en ellos quede constancia del domicilio, teléfono y número de DNI de sus autores, indicando, en su caso, el seudónimo a utilizar.

Ante esta falta de espacio, daremos prioridad, también, a todo aquello que nos llegue para ser publicado con nombres y apellidos.